Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

4785

AGINDUA, 2010eko irailaren 14koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Eibarko UAR-19 Ardantza eremuan 65 etxebizitza esleitzeko prozeduratik bereizitako 4 etxebizitza sozial esleitzeko prozedura zehazten duena, etxebizitza horiek ez baitute izan hasieran izendatutako erabilera.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2003ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez, 65 etxebizitza sozial esleitzeko prozedurari hasiera eman zitzaion. Sustapen hori Eibarko UAR-19 Ardantza eremuan kokatuta zegoen, Eusko Jaurlaritza zen sustatzailea, eta 2003ko otsailaren 4an, behinbehineko kalifikazioa eman zitzaion, EB3-0382/03-EE espediente-zenbakiarekin.

Bigarrena.– Honako hauek daude hautaketa-prozedurei hasiera emateko aginduek nahitaez bildu beharreko puntuen artean:

a) Esleitu beharreko etxebizitzen kopuru zehatza finkatzea, eta, behar izanez gero, bereizi beharreko etxebizitzen kopurua ere bai; bereizitako etxebizitza horiek izango dira, hain zuzen ere, etxebizitza-arloko premia espezifikoetarako, birkokatzeetarako edo beste edozein premiatarako, betiere, indarreko araudia betez.

b) Kupoak eta horien arteko lehentasun-ordena, aldi berean kupo batean baino gehiagotan parte hartzeko baldintzak biltzen dituzten eskatzaileak dauden kasuetarako.

Hirugarrena.– 2003ko otsailaren 10eko Aginduan aurreikusitako moduan hautatuko pertsonei etxebizitzak esleitu ondoren, prozedurari amaiera eman zitzaion.

Laugarrena.– Dena den, agindu horretan bereizitako etxebizitza guztiek ez dute izan hasieran izendatutako erabilera. Horrenbestez, etxebizitza horiek esleitu behar zaizkie, bere garaian esleitzeko prozeduran onartuak izan arren, etxebizitza bat baliatu ez zuten eskatzaileei, sustapenaren itxaron-zerrendan jarraitzen baitute. Horrela emango zaio amaiera prozedurari.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

4785

ORDEN de 14 de septiembre de 2010, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, por la que se determina el procedimiento de adjudicación de 4 viviendas sociales detraídas del procedimiento de adjudicación de 65 viviendas sociales en UAR-19 Ardanza en el municipio de Eibar, viviendas que finalmente no han sido destinadas al uso para el que fueron reservadas.

HECHOS

Primero.– Mediante Orden del Consejero del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales de fecha 10 de febrero de 2003 se iniciaba el procedimiento de adjudicación de las 65 viviendas sociales. Dicha promoción estaba ubicada en UAR-19 Ardanza en Eibar, estaba promovida por el Gobierno Vasco y había recibido la correspondiente calificación provisional con fecha 4 de febrero de 2003 bajo el número de expediente EB3-0382/03-EE.

Segundo.– Entre los extremos que de modo obligatorio han de contener las Órdenes de inicio de los procedimientos de selección se encuentran:

a) La determinación del número exacto de viviendas a adjudicar, así como, en su caso, el número de viviendas que han de ser detraídas para ser destinadas a necesidades específicas de vivienda, operaciones de realojo o para cualquier otra necesidad en aplicación de la normativa vigente.

b) Cupos y orden de prelación entre los mismos en el caso de que existan demandantes que reúnan las condiciones necesarias para formar parte simultáneamente de varios de los cupos.

Tercero.– El procedimiento concluyó con la adjudicación de las viviendas a las personas seleccionadas en la forma prevista en la Orden de 10 de febrero de 2003.

Cuarto.– Ahora bien, no todas las viviendas detraídas en dicha Orden han sido destinadas al uso para el que fueron reservadas. Por tanto, es preciso adjudicarlas a los solicitantes que ya fueron admitidos en el procedimiento de adjudicación en su momento y que, por no haber accedido a una vivienda, siguen formando parte de las listas de espera de la promoción. De esta forma se podrá poner fin al procedimiento.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Organo hau eskuduna da prozedura hau finkatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Sailak sortu, kendu eta aldatzeari, eta sail horien eginkizunak eta jardun-arloak finkatzeari buruzko maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 10. artikuluan xedaturikoaren arabera, betiere Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 4. artikuluari eta babes ofizialeko etxebizitzen esleipen prozedurei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Aginduari dagokienez.

Adierazitako legezko manuak eta horiekin bat datozen eta orohar erabilgarri direnak ikusita, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Gipuzkoako Etxebizitzako Lurralde ordezkariari baimena ematea, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2003ko otsailaren 10eko Aginduan premia espezifikoetarako bereizitako 4 etxebizitza esleitzeko. Agindu horren bidez, Eibarko UAR-19 Ardantza eremuan 65 etxebizitza sozial esleitzeko hautapen-prozedurari hasiera eman eta hainbat zehaztasun finkatu ziren. Bi etxebizitza esleituko dira 35 urtez azpiko pertsonez osatutako bizikidetza-unitateentzako kupoaren itxaron-zerrendan dauden eskabideen artean; eta beste bi etxebizitza esleituko dira adingabeak euren kargura dituzten emakume eta guraso bakarreko unitateentzako kupoaren itxaron-zerrendako eskabideeen artean.

Bigarrena.– Babes ofizialeko etxebizitzen esleipen-prozedurei buruzko 2008ko apirilaren 16ko Aginduan aurreikusitako prozedurei jarraituz egingo da esleipena.

Hirugarrena.– Etxebizitza horien esleipendun izateko, kontratua ontzat ematen den unean indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak bete beharko dira.

Ebazpen honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko irailaren 14a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Este órgano es el competente para determinar el presente procedimiento en virtud de lo previsto en el artículo 10 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, en relación con el artículo 4 del Decreto 607/2009, de 24 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes y en relación con la Orden de 16 de abril de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre procedimientos de adjudicación de viviendas de protección oficial.

A la vista de los preceptos legales señalados y demás de general y concordante aplicación.

RESUELVO:

Primero.– Autorizar al Delegado Territorial de Vivienda de Gipuzkoa para la adjudicación de 4 viviendas excluidas para necesidades específicas en la Orden de 10 de febrero de 2003 del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales por la que se inicia el proceso de selección y se determinan diversas especificaciones, para la adjudicación de 65 viviendas sociales en UAR-19 Ardanza en el municipio de Eibar. Se adjudicarán dos viviendas entre las solicitudes que integran la lista de espera del cupo para unidades convivenciales cuyos integrantes tengan una edad inferior a 35 años y otras dos viviendas entre las solicitudes que integran la lista de espera del cupo para mujeres y unidades monoparentales con hijos menores de edad a su cargo.

Segundo.– La adjudicación se realizará siguiendo los procedimientos previstos en la Orden de 16 de abril de 2008, sobre procedimientos de adjudicación de viviendas de protección oficial.

Tercero.– Para resultar adjudicatario de las citadas viviendas, se deberán cumplir los requisitos establecidos en la normativa vigente en el momento de visado del contrato.

Contra la presente Orden procede interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes del Gobierno Vasco en el plazo de un mes desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de septiembre de 2010.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.